

Akta/Kronika.

Lezon Energia Komunitatea Eratzeko Prozesua

4. saio irekia.

Euskara Kultura Aretoa [2025/1/13]

IZAERA JURIDIKOA



1.- Deskribapena

1.1.- Oinarrizko informazioa.

- **Data:** Urtarrilak 13, astelehena.
- **Saioaren iraupena:** 1,5 ordu.
- **Ordutegia:** 18:30etatik 20:00etara.
- **Lekua:** Euskara Kultura Aretoa
- **Antolatzaileak:** Iratzerri eta Lezoko udala.
- **Dinamizazio taldea:**
 - Iratzerri eta Oier Etxebarria Gutierrez (Goiener)

1.3.- Parte-hartzaileak:

 Lezoko bizilagunak norbanako bezala eta herri eragileak

- **Guztira:** 18 pertsona.

Genero/sexu banaketa:

- Emakumeak: 3

- Gizonak: 11

Adinaren arabera:

< 19 urte: 0
20 – 29 urte: 2
30 – 39 urte: 0

40 – 49 urte: 2
50 – 59 urte: 6
60 – 69 urte: 4
70 – 79 urte: 0

2.- Saioaren helburuak:

- **Ezagutu:** Komunitatearen edo entitatearen izaera juridikoaren inguruan aukerak ezagutu
- **Arakatu:** Aukeren inguruan hausnartzea. Atal juridikoan erreferentziazko pertsona adituak zeintzuk diren identifikatzea.
- **Aukeratu:** Ahal izanez gero aukerak murriztu eta bideratzea

2.- Edukiak

2.1.- Iratzerriren azalpenak

Ekaitzek gaurko bileraren nondik norakoak azaldu ditu eta aurreko saioa labur bildu du.

2.2.- Parte hartzaileen aurkezpena eta entitate juridikoen inguruko jakintza azaltzea:

Energia komunitateei ondoen doakien entitate juridikoak elkarteak eta kooperatibak dira. Partaideen gehiengoak elkarleen inguruan ezagutza askoz zabalagoa du kooperatiben inguruan baino.

2.3.- Komunitatearen sorrera prozesua kokatzea:

Formazio pilua aurretik Oierrek hurrengo saioan prozesu mugarrira izango dela azaldu du. Komunitatearen 3 azpi-taldeak definitu eta partaideak banatzen hasteko garaia izango da. Talde bakoitzak eginiko lanketen ondorioz proposamenak eramango direlarik talde sustatzailerak bertan, guztion artan, erabaki ahal izateko.

2.4.- Formazioa: Izaera Juridikoak - Elkarte ala Kooperatiben arteko ezberdintasunak

Elkarteak eta kooperatibak ginetik zer diren azaldu digu Oierrek, bien arteko ezberdintasunak agertu eta komunitatearen xedeen baitan zein izan daitekeen egokiagoa adieraziz. Goienerren eskutik sortutakoak gehien bat kooperatibak izan direla nabarmendu du, baina helburuen baitan definitu beharko dela argi utziz. Komunitateen partaideen izaerak, kuotak, derrigorrezko ekarpenak, hautazkoak eta beste azaldu ditu. Finantziario orokorra, proiektuenak eta abar nola egiten diren ere.

3.- Galde erantzunak

Zalantzak batik bat finantziarioaren ingurukoak izan dira, ekarpen motetan hain zuzen. Elkarte eta Kooperatiben arteko ezberdintasunetan sakondu beharra ere agerian geratu da. Oierrek honen inguruan konparazio taula bat ekarriko digula esan du. Bestetik udalen eta kooperatiben arteko hartuemanak ere izan dira hizpide, zenbait herritan izan diren arazoetatik zalantzak azalduz.

4.- Talde lana eta bat egitea.

Hiru taldetan banatu gara eta gaiaren inguruan hausnarketa burututa ondorengoak adierazi dira:

- Kooperatiba izaera arrotzagoa izanik, konplexuagoa, serioagoa eta uste okerrez arriskutsuagoa izan ote zitekeenaren pertzepzioa izan genezakeela aipatu da. Beldurra eragiten duela. Aurkezpenak ordea mesfidantza hori gainditzeko laguntzeko balio izan du, lege aldetik lotuagoa egonik seguruagoa delako. Diru asko mugitu beharko badugu forma juridiko egokiagoa dela ere iruditu zaigu. Hori bai, jendea erakartzeko hau ongi azaldu beharko dela adierazi da.
- Energia Komunitatearen funtzionamendua izaera juridikoaren baitan hobeto ulertzeko honen simulazio bat egitea proposatu da. Horretarako, beste herrietako adibideak baliatuz geurera eratorritako bat egitea ongi egongo litzateke: Kuotak, ekarpenak, proiektuen eta komunitatearen finantziakzioa.
- Kooperatibaren eta Elkartearen arteko ezberdintasunetan sakondu ahal izateko informazio gaiagoren beharra dagoela aipatu da. Sortze prozesuak eta urteroko mantentze-lanak zeintzuk diren ongi baloratu beharra dago. Oierrek sintetizaturiko taula bat baduela eta gure esku jarriko duela nabarmendu du.
- Elkarre izaera hautatu dutenen artean Edinorren TEK-ak (Tokiko Energia Komunitateak) dira nagusi. Aipatu da formula hau kanpotik ekarritako "kopia pega" moduko bat izan dela, prozesuan parte-hartzea jorratu ez delarik. Modu honetan bazkideak galduta sentitzen direla, hutsunez beterik egoteaz gain ez delako inongo gertutasunik herritarrekiko.
- Gaurko bileraren harira prozesuaren inguruko hausnarketa egin da ere bai. Aipatu da gaurkoa mugarriz izango dela. Gaia garrantzitsua da eta hurrengorako komunitatearen azpitaldeak sortzeko eta jendea banatu eta lanak banatzeko izango denez, konpromiso sendoagoak hartzeko momentua izango dela. Kezka sortu da gaurko asistentzia urriagoagatik, agian gaiak berak jendea atzera bota izan ote duen. Dena den, arlo juridikoan aditu diren pertsonen gaurko parte-hartze altua garrantzitsua eta nabarmenezkoa izan denez, hurrengo bilerara jendea animatzeko deialdian azalpenak ematea ere proposatu da.
- Bileraren amaieran Olatzar auzoko etxebizitza berrien teilatueta instalazio fotovoltaikoak jarriko direla aipatu da. Legez eskaturikoa betetzeko baldintza omen dira. Honen inguruko informazioa lortzea interesgarria litzateke espekulazioak alde batetara utzi eta egungo promozioetan dauden tendentziak ulertu ahal izateko.

5.- Hurrengo pausoak

Urtarrilak 27, astelehenean leku berean egitea proposatu da.

18:30etatik 20:00etara.

Tokia zehaztuko da deialdiarekin batera.